

bertan aurkitzen dira bestelako elementu legal eta instituzionalak, torturaren kontrako legeak nolabait ezereztatzen dituztenak eta sistemaren zaintzaileek eta eusleek torturaren kontra egiten dituzten gaitzespenak baliogabetzen dituztenak.

Biolentzi mota bat da tortura: biolentzia oso berezia eta landua. Biolentziaren historiaren eta kulturaren barnean ikusi behar da, beraz, torturaren kultura. Zalantzarik gabe, biolentzia osoaren eta mota guztien sustraiak eta elkarrekiko loturak aztertzeraz eramango gintuzke torturaren azterketak. Hala ere, eta Fernando Savater-ek aitortzen zuenez, ez dago biolentzi modu guztiak berdintzerik eta nahasterik. Horixe izango litzateke, hain zuzen, torturaren kulturaren kontrako burrukari bere oinarri sakonenak kentzea. Horretxek ematen dio torturaren kulturari eta sistemari bere barruko kontraizanak estaltzeko bidea. ■  
*P. Kortabarria.*

## Karlista eta sozialista

Maiatzaren 9an PSOEk bere *Tribuna Vasca* estreinatu zuen, eta EKak bere «Montejurra 82» ospatu zuen. Eta EKako Zufiak deklarazio batzuk egin zituen *Tribuna Vasca* horretan.

Zufiak zioenez, abertzaletasunetik geroz eta urrutiago daude beraiek. Zeren eta, zer da abertzaletasuna? Zufiaren erantzuna: «fanatismo, intolerancia, egoísmo e insolidaridad».

Nazionalismotik, beraz, geroz eta urrunago. Geroz eta hurbilago, alderantziz, PSOEngandik, zeren eta «ambos partidos propugnamos el socialismo como forma de concebir la sociedad».

Hurbiltze eta urruntze askotxo, ezta? EKArekin lehen harritu ginenok, egia esan, orain ez hainbeste. Zufiarekin gizarte-alternatibak aginte-aulkia behar du inondik ere. ■ *Joan Larrinaga.*

## València: ortografiaren katramila politikoak

Euskal Herrian, eta gure aldizkari honetan bertan, oso gutxi aipatu izan da València-ko kultur eta hizkuntz egoera. Barne-gatazka sinestezina duen hizkuntz egoera. Alderdi-politika egiteko, inon gutxitan bezala darabiltzate han hizkuntza baten (=katalana) barneko ñabardura dialektal txikiak. Egia esan, gure batasun-borrokak berak ere txiki gelditzen dira han gertatzen ari denaren ondoan.